



Urte eta erdiko lanketaren ostean, urrian plazaratu zuten Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioa. Harrezkero, heziguneetan ari dira aurkezten edukia. Gizarteratze lan horretan, maiatzaren 5ean Nazio Jardunaldiak egin zituzten Donostian, puntuak osatzen hasi eta ekarpen gehiago jasotzeko.

Euskal Hezkuntzaren oinarria hezurmamitzen

Aldaketa eta aro berri baten beharra sumatzen da hezkuntzan. Gizarteak aldatzeko eskatzen dio hezkuntzari eta honek esku hartze gehiago gizarteari. Testuinguru horretan, hamaika proposamen eta egitasmo sortu dira. Horien artean bada bat Euskal Herria bere osotasunean aintzat hartzen duena: Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioa.

LORE AGIRREZABAL

Argakia: Karlos Corbella

BOLO-BOLO dabilta azkenaldian Eusko Jaurlaritzaren EAerako curriculumari eta Nafarroako curriculumari buruzko kontuak, Espainiako Gobernuak ezarri duen LOE sistemaren ingurukoak, Europa osoan ezarriko den Bolognako prozesua... Hezkuntza aldatzera datoz guztiak, baina horietako inork ez du Euskal Herria –hego eta ipar– bere osotasunean aintzat hartzen. Bada ordea Euskal Herria abiapuntu hartuta gorpuzten ari den akordio bat, herri ekimenez eta eremu ofizialetatik kanpo sortua: Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioa. Hezkuntza sistema propioa garatzeko tresna izatea du helburu.

Nazio Eztabaidagunean izan du sorrera ekimenak. Eztabaidaguneko Hezkuntza Batzordeak osatu du eta hezkuntza esparruko hainbat lagunen atxikimendua eta ekarpenak jaso ditu.

Hiru atal nagusi ditu Hezkuntza Akordioak: Euskal Herritarren hez-

Hiru atal nagusi ditu
Akordioak: Euskal Herritarren
hezkuntza eskubideak, Euskal
Herriko Hezkuntza Publikoa
eta Elkargunea

kuntza eskubideak, Euskal Herriko Hezkuntza Publikoa eta Elkargunea. Abiapuntua hezkuntza eskubideen dekalogo da, eta horri lotuta datoz beste puntuak. Izan ere, eskubide horiek bermatzeko publikotasunaren kontzeptu berria eta elkargune baten beharra ezinbestekoak direla uste du Hezkuntza Batzordeak.

10 hezkuntza eskubide

Dekalogo hori nazioarteko oinarrizko eskubideen hitzarmenetan oinarrituta osatu du Hezkuntza Batzordeak. 10 dira akordioarekin bat egin nahi dutenek aintzat hartu beharreko oinarrizko eskubideak. Horiek nola aplikatu hausnartzeko lan taldea osatu zen maiatzeko Nazio Jardunaldian eta bertan beharrezkotzat jo zuten euskalduntzeko eskubidea bermatzeko plangintza estrategiko orokor bat martxan jartzea. Hala azaldu digu Gorka Zozaia batzordeko

ideak: “Hasteko, euskarak ofiziala izan behar du leku guztietan, eta hori horrela denean ikasleak euskalduntzeko zer eta nola egin zehaztu beharko litzateke”. Bitartean, abiapuntu gisa, euskarak eta euskalduntzeak kulturari eta identitateari lotuta egon behar dutela ondorioztatu zuten.

Hezkuntza Akordioak Euskal Curriculumaren aldeko apustua egiten du. Sortzen Ikasbatuaz, Ikastolen Konfederazioaren eta Udalbiltzaren ekimenez sortu, eta eragile askoren ekarpenekin osatzen ari den curriculum. Ez datoz bat Eusko Jaurlaritza osatzen ari den curriculumarekin. Izan ere, Euskal Curriculum eta EAEko Hezkuntza Sailaren curriculum batara ezin bihurtzen dituen oinarria da, alegia, Euskal Herriaren definizioa. Jaurlaritza EAEko curriculum ari da egiten, eta bestearen abiapuntua zazpi probintziez osatutako Euskal Herria da. Ez da curriculum ofiziala, baina errealitatean ikastetxe askotan aplikatuko dela dio Zozaiak: “Gauza bat da curriculum ofiziala, Lakuan idazten ari diren txostena, eta bestea irakasleek eskolan ematen dutena”. Ikastetxeetan bertako hezkuntza proiektuek curriculum ofizialek baino eragin handiagoa dutela dio Zozaiak, eta heziguneez curriculum ofizialekiko paraleloki, Euskal Curriculum aplikatzeko gaitasuna eta bideak badituztela. Hori gauzatzeko, parte hartuko duten ikastetxeek sare bat osatu beharko dute.

Hezkuntza Publikoaren Elkargunea

Aipatutako ikastetxeen sarea beste lan talde baten hizpide nagusi izan zen Nazio Jardunaldietan. Elkargunea deitu diote sare horri. Akordioak zehazten dituen 10 eskubideak aintzat hartzen dituzten heziguneez osatuko dute, eta hezkuntza eskubideak modu praktikoa gauzatzeko bitartekoak ematea izango da bere egitekoa.

Leloak

Ekainaren 3an Euskal Eskola Publikoaren Jaia ospatu zen Ondarroan (Bizkaia) eta hilaren 17an Araba Euskaraz egingo da Argantzunen (Trebiñuko konderria). “Dra!” izan da Ondarroako festaren leloa. “Dra!” bete-betean asmatzea da Ondarroako hizkeran. Euskal Eskola Publikoaren helburuekin eta jaiarekin ere ondo josten den hitz bizia da. Argantzunen ere bete-betean asmatu dute leloarekin: “Garenaren jostun”. Julen Zulaika bertsolariak botatakoa da. Argantzun Trebiñuko konderrian dago eta legez ez da Araba, baina euskararen herriari lotuta dago. 2003an ikastola sortu zuten eta 39 haur dabilta bertan. Zulaiak egoera hori oihailezko mapa batean irudikatu du, Trebiñuko konderria Arabari jositako petatxoa bailitzan. Bere izaera euskararen herriari josten ari zaien petatxoa.

Elkarguneari buruzko lan taldea koordinatu zuen Edurne Larrañagak eta akordioaren sorrerara jo du bilgune honen beharra azaltzeko: “Hezkuntza Akordioa maila teorikoan geratzen da, baina praktikara eramateko sortu zenez, baliabide batzuk behar ditu. Gaur egun, hezkuntzan zatiketa handiak daude: derrigorrezko hezkuntzaren eta unibertsitatearen artekoa, publiko eta pribatuaren artekoa... Zatiketa horiek egungo legeek eragindakoak dira, euskaldunok erabaki ez ditugun legeen arabera. Eta traba egiten digute. Beraz, hori ahaztu, gure sistema diseinatu eta urratsak ematen hastea beharrezkoa dela ikusi dugu”. Bere hitzetan, zatiketa horiek gainditzeko, hezkuntza sistema nazionalaren eta aipatutako hezkuntza eskubideen alde dauden ikastetxeek elkartu egin behar dute. Horretarako sortu dute Elkargunea; “sintonia berdinean” jardungo duten heziguneez biltzeko.

Hezkuntza publikoaren definizio berria

Elkarguneari izen osoa Euskal Herriko Hezkuntza Publikoaren Elkargunea da, eta izen horrek Hezkuntza Akordioaren funtsezko beste ezaugarri bat du: hezkuntza publikoaren kontzeptu berria. Hezkuntza Akordioan jaso duten definizioaren arabera, “denona denari esaten zaio publikoa”. Ildo horretatik, Euskal Hezkuntza Publikoa euskal herritarren eskubideak gauzatzen dituen izango da, eta horren diseinua, antolaketa eta kudeaketa botere publikoek eta hezkuntza komunitateak egin beharko dutela dio akordioak.

Hezkuntza Batzordeko kide Juankar Aretxabaletak azaldu digunez, Euskal Herrian publikotasunari buruzko eztabaida indarrean dagoen eskemaren arabera izan da orain arte, eta hori aldatu egin behar da. “Gure ustez, ezinbestekoa da beste ikuspegi batetik planteamendu berri bat egitea”. Publikoa erantzukizun kolektiboa eskatzen duen egitura dela dio Aretxabaletak eta alde horretatik, botere publikoei eta herritarrei dagozkien eskumenak zehaztu eta banatu egin beharko liratekeela. “Gaur egungo egitura bertikala da eta gainera kanpotik datorkiguna; bai Paristik, bai Madrildik. Gure iritziz, hezkuntzak egitura horizontala izan beharko luke; dauzkagun eskumenak erdia baino gutxiago dira eta planteamendu horrekin ez da posible kalitatezko euskal hezkuntza aurrera ateratzea”.

Laburbilduz, herriarena, euskalduna, beste kulturak errespetatuko dituen, parte hartzailea, parekidea, eta pertsona kritiko eta askeak heziko dituen hezkuntza egitasmoa ari da gorpuzten, aldaketa eragin nahi duen eredu berria. ■

Hezkuntza Batzordearen Dekalogoia

- 1- Bazterketarik gabe ikasteko eskubidea.
- 2- Eskolaren bidez euskalduntzeko eskubidea.
- 3- Curriculum propioaren arabera hezteko eskubidea.
- 4- Hezikidetzan, parekidetasunean oinarritutako hezkuntza jasotzeko eskubidea.
- 5- Herritarrek hezkuntzako erabakiak hartzeko eskubidea.
- 6- Euskal Herriaren beharrak aseko dituen Unibertsitate Sistema izateko eskubidea.
- 7- Hezkuntzaren bidez pertsona kritiko eta aske izateko ahalmenak garatzeko eskubidea.
- 8- Ikasguneetan sartzen diren etorkinei eskubide osoz euren ama hizkuntza eta kultura errespetatzea.
- 9- Heziguneez beren Hezkuntza Proiektua garatzeko eskubidea.
- 10- Europako hezkuntzan, Euskal Herriak hezkuntza sistema propioa izateko eta arautzeko eskubidea.